



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN AZALEKO ORRIA

Espediente zk.: 06-400-10

Kontratazioaren xedea: Eusko Legebiltzarreko sareko egitura berritzea.

Zeregina: Administrazio klausula berezien agiriaren azaleko orria.

Prozedura: Hornidurak prozedura irekiaren bidez kontratatzea.

1. KONTRATUAREN XEDEA:

1.1.- Jardueren araberako produktuen sailkapen nazionalaren (CPA-2002) nomenklaturari dagokion kodea adieraztea: 30.02.1

1.2.- CPVn duen erreferentzia-zenbakia (Batzordeak 2003ko abenduaren 16an emandako 2151/2003 (EE) Erregelamendua): 30210000-7.

Xede nagusia: Eusko Legebiltzarreko sareko egitura berritzea kontratatzea.

1.3.- Kontratu-izaera izanik, espedienteari atxiki zaizkion dokumentuak adieraztea:

- Azaleko orria eta administrazio-klausula bereziak.
- Oinarri teknikoak.
- Enpresa esleipendunarekin sinatuko den kontratua.

1.4. Bete beharreko administrazio-beharrak: Xede nagusian adierazitakoak

1.5.- Loterik badagoen (bai/ez): Ez.
daiteke.

1.6.- Barianteak sartzeko aukerarik (bai/ez): Ez da halakorik ezartzen, baina administrazio-klausula berezien agiriak adierazitakoa hobe daiteke.





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2. KONTRATAZIO ORGANOA: Eusko Legebiltzarreko Mahaia.
3. ESPEDIENTE ZENBAKIA: 06-400-100
4. ARAUKETA HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA DEN (bai/ez):
Bai.
5. ONDOKOEI ERRESERBATUTAKO KONTRATUA DEN:
 - Enplegu Zentro bereziak (bai/ez): Ez.
 - Enplegu babestuko programen barruan egikaritzeko (bai/ez): Ez.
6. PRESAKO TRAMITAZIOA (bai/ez): Ez.
7. LIZITAZIO ELEKTRONIKO BIDEZKO PROZEDURA BAIMENTZEN DEN
(bai/ez): Ez.
8. KONTRATATZAILEAREN PROFILA. ENPLEGUAREN BABESARI, INGURUMENARI ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO INTERESEKO DOKUMENTAZIOA ETA KLAUSULA-AGIRIAK LOR DAITEZKEEN TOKIA:

8.1 Kontratatzailearen profila: erakundearen web orrian izango da eskuragarri, eta bertan kontratazio-organismoaren kontratu-jarduerari buruzko datu eta informazioak jasoko dira.

8.2. Klausulen agiriak eta intereseko gainerako agiriak non lor daitezkeen:

Non: Eusko Legebiltzarra, Becerro Bengoa kalea, z.g., 01005 Vitoria- Gasteiz.

Web orria:

www.parlamento.euskadi.net: (Dataweb- Zerbitzuak- Lizitazioak).

Harremanetarako:

Informazio Sistemen Zuzendaritza.

Tel.: 945 004263

Faxa: 945 135406

E_mail: informatika@parlam.euskadi.net





8.3 Enpleguaren babesari, ingurumenari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko informazioa.

Enpresa lizitatzailerak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren informazioa jaso ahal izango du enpleguaren babesaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz –kontratua egikaritzean aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Saileko Ingurumen Sailburuordetzan, IHOBE sozietate publikoaren bitartez, informazioa jaso ahal izango du ingurumen alorreko indarreko xedapenei buruz –kontratua egikaritzean aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoan informazioa jaso ahal izango du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko indarreko xedapenei buruz –kontratuaren egikaritzeari aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

9. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA: Hirurehun mila euro (300.000,00€)

9.2.- Prezioaren zati bat Administrazioak eman beharreko ondasunekin ordaintzen bada, ondasun horiei dagokien lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoa (SPKLren 270. artikulua): Eskaintza honi ez dagokio horrelakorik.

10. AURREKONTUKO DIRU IZENDAPENA: 2010 ekitaldiko 64303/00 kontu-saila.

11.BURUTZEKO EPEA: Hornidura martxan jarriko da kontratua sinatzen denetik zortzi asteetara, Eusko Legebiltzarrak esleipena egiten duenetik kontatzen hasita.

11.1.- Kontratu hau bere exekuzioa baldintzatzen duen beste mota bateko gehigarriak: EZ.





12. KONTRATUA LUZATZEA (bai/ez): Ez.

12.1. Zenbat aldiz luza daitekeen, kontratua amaitu aurretik bi aldeak ados jarri eta dokumentu bat emanaz:

12.2. Luzapen bakoitzaren iraupena:

13. PREZIOA EZARTZEKO SISTEMA (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 278. artikulua): Oroharreko prezioan

14. ORDAINKETAK ZENBATEAN BEHIN: Kontratazio honen xedea burututa dagoela behin betiko akta egindakoan, esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren zenbatekoa fakturatuko du.

15. KONTURAKO ORDAINKETAK: Ez dira ezarri.

15.1.- Kontura ordain daitezkeen eragiketak zein diren:

15.2.- Prestatze-eragiketak baloratzeko irizpideak eta modua:

15.3.- Konturako ordainketak kitatzeko plana:

15.4.- Jarri beharreko bermea:

16. PREZIOAK BERRAZTERTZEA (bai/ez): Ez.

16.1.- Erabil daitekeen indize edo formula ofiziala: Indarrean dagoen legediaren arabera, eta enpresa esleipendunaren proposamenarekin bat etorrira, azaleko orriaren 12. puntuan aurreikusitako luzapenaren kasuan.

17.- PREZIOA ALDATZEKO KLAUSULA EPE EDO ERRENDIMENDU MAILAKO ZENBAIT HELBURU BETETZEAREN ARABERA (bai/ez). EZ

18.- BERMEAK

18.1.- Behin-behineko bermea: Ez da ezarri.

18.2.- Behin betiko bermea: Esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

18.3.- Berme osagarria: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 83.2 artikuluko kasua; ez da ezarri.

19.- PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKOA: Esleipendunak ordainduko ditu.





20.- AZPIKONTRATATZEKO GEHIENEZKO EHUNEKOA: ez dago azpikontratatzerik.

21.- LAN PROGRAMA (bai/ez): Bai, oinarri teknikoen agirian zehaztuko da.

22. HITZARTUTAKO ZERBITZUA NON EMAN EDO EGIN BEHAR DEN: Eusko Legebiltzarra, Becerro Bengoa kalea, z.g., 01005 Vitoria-Gasteiz.

23.- LANAK BALORATZEKO ETA JASOTZEKO PROZEDURA: Hileroko jarraipena, Legebiltzarreko Informazio Sistemen Zuzendaritzak egina, emandako zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko.

24.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN 196.3 ARTIKULUAN EZARRITAKO ZIGORREZ BESTELAKOAK: Hornitu beharreko ondasunak emateko epea, hots, esleipendunak bere eskaintzan zehaztutako epea (Eusko Legebiltzarrari egozteko moduko arrazoiengatik izan ezik) bete ezean, esleipenaren zenbateko osoaren % 0,2ko zigorra ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.

25.- PREZIOA EZ BESTE KONTRATU KLAUSULA BATZUK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK: ez dira aurreikusi.

26.- EZ-BETETZE PARTZIALEK KONTRATUA SUNTSIARAZTEA EKARRIKO DUTE, HONAKO KASU HAUETAN: Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legean jasotakoak (206 eta 275. artikulua).

27.- KONTRATU HAU AGIRIAREN 17.4 ETA 19.10 KLAUSULETAN JASOTAKO KONFIDENTZIALTASUN ARAUEI ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO HARTU BEHARREKO NEURRIEI LOTUTA DAGO. ZEHAZTU, HALA BADAGOKIO, AGIRIAREN 19.10.7.b) KLAUSULAN AURREIKUSITAKO ADIERAZPENAK: Ez dira zehaztu.





28.- PRESTAZIOAK JASOTZEKO EPEA ETA BERMEALDIA:

28.1.- Prestazioak jasotzeko epea, esleipena egiten den egunetik kontatzen hasita: zortzi astebete.

28.2.- Berme-epea: Bi urtebete.

29.- KONTRATUA EGIKARITZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK:

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araubideari lotuta dago, hau da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 6. artikulua, eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Oinarrizko Legeak eta bera garatzen duen arautegiak araututakoari lotuta.

Baldintza teknikoan agiritik ez bada eratoritzen hitzartutako prestazioaren ezaugarri intrintsekoek eskatzen dutela prestazioa derrigorrez eta soilik beste hizkuntza batean edo beste hizkuntza batzuetan ematea, hizkuntza ofizial bien erabilera kontratua burutzeko baldintza bat da eta baldintza hori ez betetzetik eratorri egiten dira kontratu honetako edozein klausula betetzen ez denerako aurreikusitako ondorioak.

Kontratua egikaritzerakoan, agiriaren 19.8 klausulak xedatutakoa bete beharra dago.

30.- KONTRATUA GAUZATZEKO INGURUMEN EDO GIZARTE IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK (lizitatzaileak III. eranskinean jasotako konpromisoa sinatu eta aurkeztu beharko du): Ez.

30.1.- Ingurumen izaerakoak:

30.2.- Gizarte izaerakoak:

a) Enpresa kontratistak, kontratatutako lana egin eta aurkezterakoan, genero-ikuspegia sartuko du eta diskriminazio sexistaren elementuak ekidingo ditu hizkuntza eta irudiaren erabilera.

b) Kontratututako prestazioan ikastaroak ematea sartzen denean, ikastaro horien edukian gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sartuko da.

31.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA:

Non: Eusko Legebiltzarra, Becerro de Bengoa z/g, 01005 Vitoria-Gasteiz.

31.1.- Behar izanez gero, eskaintza postaz bidali dela iragartzeko bideak:

Faxa: 945 135406





32.- SAILKAPENA EDO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO EKONOMIA ETA FINANTZA KAUDIMENA ETA GAITASUN TEKNIKOA DELA-ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

32.1. ZERBITZU KONTRATUAK:

32.1.1 Sailkapena eskatzen bada:

a) Eskatutako sailkapena (120.000,00 euro edo gehiagoko aurrekontua duten kontratuak, salbuetsi gabekoak): Ez da eskatzen.

b) Horrelako sailkapenik ez badago, Europar Batasunekoak bai baina Espainiakoak ez diren enpresek honen ondoren zehaztutako bideak erabiliz, ziurtatu egin beharko dituzte gaitasun ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa dela-eta bete beharreko ondorengo baldintzak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64 eta 67. artikuluen arabera:

- Egiartzatzeko bideak:

- Gaitasun ekonomiko eta finantzarioa:

Modu hauetakoren bat edo gehiago erabiliz egiazta daiteke:

a. Finantza-erakundeek emandako adierazpen egokiak edo, halakorik izan ezean, arrisku, profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruia baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b. Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztu beharrik ez daukaten enpresaburuek, kaudimena egiaztatzeko bide alternatibo gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.

c. Negozio-kopuruari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuak xede dituen jardueren eremuko negozio-kopuruari buruzkoa, gehienez ere sorrera-egunaren edo enpresaren jarduera-hasieraren egunaren arabera, azken hiru ekitaldiei dagokiena, negozio-kopuru horren erreferentziak eskura diren neurrian.

- Gaitasun teknikoa:

Modu hauetakoren bat edo gehiago erabiliz egiazta daiteke:

a. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanik garrantzitsuenen zerrenda, hartan jasota horien zenbatekoa, datak eta onuradun publiko edo pribatua. Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak emandako egiaztagirien edo bisatuen bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo hartzailea erosle pribatu bat denean, horrek emandako egiaztagiri baten bidez edo, halako egiaztagiririk izan ezean, enpresaren adierazpen baten bidez; horrela badagokio, agintaritza eskudunak kontratazio-



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

organoari jakinarazi beharko dizkio agiri horiek zuzenean.

b. Kontratuan parte hartzen duten teknikariak edo unitate teknikoak aditzera ematea, enpresan integratuta egon edo ez egon; kalitatearen kontrolaz arduratzen direnak adieraziko dira batik bat.

c. Enpresak dituen instalazio teknikoak, kalitatea bermatze aldera darabiltzan neurriak eta azterketa eta ikerketarako dituen baliabideak deskribatzea.

d. Egin beharreko zerbitzuak edo lanak konplexuak direnean, edo, salbuespenez, helburu bereziren baterako direnean, kontratazio- organoak, edo, bere izenean, enpresa kokatuta dagoen estatuko erakunde ofizial nahiz homologatu eskudunen batek egindako kontrolarekin, baldin eta erakunde horren aldetik enpresaburuaren gaitasun teknikoaren gainean adostasunik badago. Kontrola enpresaren gaitasun teknikoaren gainekoa izango da, eta, beharrezkoa bada, enpresak azterketa eta ikerketa egiteko dauzkan baliabideen eta kalitatea kontrolatzeko erabilitako neurrien gainekoa ere.

e. Enpresaburuaren eta enpresaren zuzendaritzako pertsonalaren titulu akademikoak eta profesionalak, eta, batik bat, kontratua exekutatzeko ardura duen pertsonalarenak.

f. Dagokien kasuan, enpresak kontratua exekutatzeko aplikatu ahal izango dituen ingurumen-kudeaketarako neurriak adierazi.

g. Enpresaren urteko bataz besteko plantillari eta azken hiru urtetako zuzendaritza-pertsonalaren garrantzariburuzko deklarazioa, dokumentazio ziurtagarriarekin batera.

h. Lanak egin edo prestazioak emateko izango diren makinak, materiala eta ekipo teknikoak adierazteko deklarazioa, dagokion dokumentazio ziurtagarriarekin batera.

i. Enpresak kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duen aditzera ematea.

32.1.2. 120.000,00 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten edo sailkatu beharrik ez duten kontratuak: Interesdunek, ondoren zehaztutako bideak erabiliz, egiaztatu beharko dute betetzen dituztela ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa dela-eta ezarritako baldintzak, beti ere, HAKLren 64 eta 67. artikuluetan ezarritakoaren arabera:

a) Egiaztatzeko bideak:

-Gaitasun ekonomiko eta finantzarioa: 32.1.1.

puntuak adierazitakoak.

-Gaitasun teknikoa: 32.1.1. puntuak adierazitakoak.



33.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

33.1.- Esleipenerako irizpide bakarra dagoen: Preziorik merkeena (bai/ez): Ez.

33.2.- Kontratua esleitzeko oinarritzat erabili behar diren irizpide objektiboen zerrenda, emango zaien puntuazioa adierazita:
Klausula teknikoen agiriko 12. puntuan zehaztutakoari jarraituko zaio.

33.3.- Baloratzean balio-judizio baten arabera kuantifikatuko diren irizpideei lehentasuna ematea eskatzen duten aparteko kasuak dauden (bai/ez): Aritu-batzorde bat osatzea edo zehaztutako erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatzea.

34.- ESKAINTZA EGITEN DUENAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA (azaleko orri honen 33.2. puntuan zehaztutako esleipen-irizpideak baloratzeko):

34.1.- A gutun-azalean sartu beharreko dokumentazioa zehaztuko da, formulen bidez balora daitezkeen irizpideak baloratzeko. Halaber, C gutun-azalean sartu behar dena zehaztuko da, balio-judizio baten arabera kuantifikatuko diren irizpideak baloratzeko.

34.2.- Baldin eta aipatutako irizpideen artean "beste hobekuntza batzuk" agertzen badira, agindutako betebeharrei buruzkoak diren baina esleipenerako beste irizpide batzuetan sartuta ez dauden prestazio gehigarriak direnak, kasu horretan, agiriko 8.3.2.b) klausula eta II. eranskinean aurreikusitakoari jarraituko zaio.

34.3.- Aipatutako irizpideen artean lan-plana ezartzen bada, kontuan hartu beharko da agiriaren 7.3.2.c) klausulan ezarritakoa.

35.- ENKANTE ELEKTRONIKOA EGITEA AURREIKUSTEN DEN (bai/ez): Ez.

